# 2016 URTARRILA - AUZO BATZARRAK
## ASAMBLEAS MUNICIPALES - ENERO 2016

| | | |
|---|---|---|
| **Auzoa** Barrio | ARETA | |
| **Data** Fecha<br>**Ordua** Horario<br>**Lekua** Lugar | 2016-01-18<br>19:02 – 21:15<br>Aretako Kultur Etxea | |
| **Bertaratuak** Asistencia | ***Ordezkaritza politikoa** representación política<br>-Jon Iñaki Urkixo Orueta – BILDU (alkatea)<br>-Jon Ander Altube Lazkano - BILDU<br>-Amets Meaza Castañares - BILDU<br>-Isabel Bóveda Urioste- BILDU<br>-Iñigo Martinez Cerrillo - BILDU<br>-Nerea González García - OMNIA<br>-Txaro Sarasua Díaz – PSE-EE<br>-Iñigo Pedruzo Abasolo - PP<br><br>***Udal teknikariak** técnicas/os municipales<br>-Juan Fernando Etxebarri Goiria – Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Baserri-ingurunearen Arloko burua // Responsable del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y M.R.<br>-Laura Castresana Iglesias – Udal arkitekto teknikoa // Arquitecta técnica municipal<br>-Joseba Solaun Solana – Obra, Zerbitzu, Mantentze-lan eta Baserri-ingurunearen Arloko arduraduna // Encargado de Obras del Área de Obras, Servicios, Mantenimiento y M. R.<br><br>***Idazkaria** secretaria<br>-Arantza Barrenengoa Pagazaurtundua<br><br>***Dinamizatzailea** moderador<br>-Andoni Orueta Ibarrola<br><br>***Auzokideak** vecinas/os<br>-Guztira total **29**<br>-Emakumezkoak **13**<br>-Gizonezkoak **16**<br>-Kazetariak **3** | |
| **Gaien zerrenda** Orden del día | 1_ **Aurkezpena** presentación (Natxo)<br>2_ **Parte hartzeko aurrekontuak** Presupuestos participativos (Amets)<br>3_ **Egindakoaren berri ematea** Dar cuenta (Jon Ander)<br>4_ **Galderak** Preguntas | |
| | ***Euskaraz*** | ***Gaztelaniaz*** |
| **Edukia** Contenido | **1_Natxo Urkixo (ALKATEA).-** Bertaratutako zinegotziak aurkeztu ditu eta gogora ekarri du Esteban Goikoetxea, Aretako auzokide zendua, | **1_Natxo Urkixo (ALCALDE).-** Presenta a los concejales asistentes y hace mención a Esteban Goikoetxea, vecino de Areta fallecido, que merece |

| | | |
|---|---|---|
| | aintzatespen berezia merezi duelako Aretaren alde izandako borroka nekaezinarengatik. Azaldu duenez, Auzo Batzarrak atzeratu izanaren arrazoia izan da 2015eko abenduaren 20an hauteskundeak izan direla eta ondoren Gabonak etorri direla. Gogoratu du Auzo Batzarren helburua dela Udalaren eta herritarren arteko harreman zuzena lortzea, eskaerak, kexak, iradokizunak eta abarrak aurkezteko. Esan duenez, urteko garaia kontuan izanda, ardatz nagusietako bat udal aurrekontuak dira; aurreko legegintzaldiaz geroztik herritarrei aukera ematen zaie aurrekontuen prestakuntzan parte hartzeko eta, gaur, prestakuntza horren lehenengo zatia ikusiko dugu, 2012an egindako inkestak eguneratzeko beste inkesta batzuk egin dira; auzo bakoitzak bere lehentasunak zehaztu zituen eta, aurtengo inkesten bidez, lehentasun horiek aldatu behar diren edo bere horretan eutsi behar zaien ikusiko da. Pena agertu du gizarte eta hezkuntza gaien inguruko proposamen faltagatik (udal kultura, euskara, enplegua, gizarte ongizatea…) eta betoia, adreiluak, asfaltoa lehenetsi izanagatik. | un reconocimiento especial por todo lo que ha luchado por Areta. Comenta el retraso en el comienzo del período de las Asambleas, debido a las elecciones del 20 de diciembre de 2015 y a las vacaciones de Navidad. Recuerda que el objetivo de estas Asambleas es conseguir el contacto directo del ciudadano con la corporación municipal para atender peticiones, sugerencias, quejas, etc. Comenta que uno de los ejes principales, teniendo en cuenta en la época del año en que nos encontramos, son los presupuestos municipales; se pretende, desde la legislatura anterior, dar la oportunidad a los vecinos de participar en la elaboración de los mismos y hoy veremos una primera parte de ellos. Se han realizado encuestas para actualizar las realizadas en el año 2012, en las que cada barrio marcaba sus preferencias, para saber si se mantiene el mismo interés, las mismas prioridades, para poder renovar o mantener como estaban. Lamenta la falta de propuestas respecto a temas sociales y de educación (cultura municipal, euskera, empleo, bienestar social…), dando prioridad al tema hormigón, ladrillo, asfalto. |
| | **2_Amets Meaza (BILDU).-** Azaldu egin du udal aurrekontua dela Udalak duen tresnarik garrantzitsuena, zehaztu egiten dituelako ekitaldian, kasu honetan 2016an, bideratuko diren jarduketak, eta izango diren diru-sarrerak eta gastuak aurreikusten dituelako; aurrekontuak Osoko Bilkuran onartu behar dira. Aurrekontuen egiturari dagokionez, bi bloke daude: diru-sarrerak eta gastuak. Diru-sarrerak dira ekitaldian bideratu nahi diren jarduketak finantzatzeko bildu beharreko eskubide ekonomikoen aurreikuspena. Gastuak dira Udalak dituen gastu horiei guztiei aurre egiteko | **2_Amets Meaza (BILDU).-** Explica que el Presupuesto Municipal es la herramienta más importante que tiene el Ayuntamiento, es la que marca cuáles van a ser las actuaciones del ejercicio, en este caso 2016, y es el instrumento que regula la previsión de ingresos y gastos; deben ser aprobados por Pleno. En cuanto a su estructura, decir que consta de dos bloques, ingresos y gastos. Los ingresos son la previsión de derechos económicos a recaudar durante ese ejercicio, para poder financiar las actuaciones que se quieran llevar a cabo y los gastos son los créditos necesarios para poder hacer frente a todos esos gastos que tiene el Ayuntamiento. Se ha |

| | | |
|---|---|---|
| | behar diren kredituen multzoa. Gastuei dagokienez, bereizketa bat egin da; Udal Arloen arabera (Alkatetza, Funtzio Publikoa, Ogasuna eta Ondarea, Hirigintza eta Ingurumena, Obrak eta Zerbitzuak, Kultura, Kirolak eta Jaiak, Gizarte Ongizatea, Hezkuntza, Gazteria eta Berdintasuna, Euskara eta Tokiko Garapen Agentzia) eta atalen arabera (sei atal). Gastuak bereiztearen helburua da inkestekin lotzea, 2012ko inkestetan garrantzi handiagoa eman zitzaielako inbertsioekin eta auzoetako mantentze-lanekin erlazionatutako gastuei eta apur bat alboratuta geratu zirelako gizarte gaiekin eta bestelakoekin erlazionatutako kontuak. Horregatik bereizi dira bi bloke egin diren azken inkestetan: Alde batetik, alderdi globalak, hamar Udal Arloetan banatutako tematikekin eta, bestetik, alderdi espezifikoak, azpiegiturei eta gainerakoei dagozkienak; azken alderdi horiek, halaber, bi bloketan banatu dira: udalerri osoari dagokiona eta auzoan auzoko kontuei, kasu honetan, Aretari dagokiona.<br>Inkestan udalerri osorako hiru aukera proposa daitezke eta beste hainbeste Aretarako. Gainera, espazio zuriak ere badaude, auzokide bakoitzak nahi duena ipin dezan. Esan behar da inkestan ageri diren hiru proposamenak 2012ko inkestan lehenetsitako eta oraindik egikaritu gabeko lehenengo hiru jarduketak dira; bestela esanda, bigarrena egikarituta dagoenean hirugarrenera edo laugarrenera igaroko gara eta horrela pausoz pauso auzo bakoitzean. Gogora ekarri ditu parte hartzeko bideak: postontzietan utzitako paperezko inkestak (Udaletxean aurkeztekoak) betetzea, udal webgunean zintzilikatutakoak betetzea eta Auzo Batzarretan parte hartzea. Inkestak aurkezteko epea urtarrilaren 29an bukatuko da, Auzo Batzarren zikloa bukatzen den egun berean. Azpimarratu behar da inkesten helburua dela | hecho una pequeña distinción a la hora de distribuir los gastos: por áreas (Alcaldía, Función Pública, Hacienda y Patrimonio, Urbanismo y Medio Ambiente, Obras y Servicios, Cultura, Deportes y Festejos, Bienestar Social, Educación, Juventud e Igualdad, Euskara y la Agencia de Desarrollo Local ), y por capítulos ( seis capítulos ). El objetivo de esta distribución de gastos es enlazar con las encuestas, ya que en las del 2012 se hacía más hincapié en los gastos relacionados con las inversiones o mantenimiento en las zonas de los barrios, quedando un poco en el tintero temas relacionados con las áreas sociales y otro tipo de temáticas. De ahí que, en las encuestas actuales, se distingan dos bloques diferenciados: por un lado, el área global, que hace referencia a diferentes temáticas, englobadas ya en las diez áreas del Ayuntamiento, y el área específica, referente a infraestructuras y demás; esta área, a su vez, se divide en dos bloques: lo referente a todo el municipio y al barrio de Areta (en este caso).<br>En la encuesta hay posibilidad de proponer tres opciones para todo el municipio y otras tantas para Areta más espacios en blanco, para que cada vecino/a proponga lo que le convenga. Decir que las tres propuestas que aparecen impresas en la encuesta son las tres primeras actuaciones que se priorizaron en la encuesta del año 2012 y que, aún no se han ejecutado; es decir, si la segunda ya está ejecutada, se pasa a la tercera o a la cuarta, y así sucesivamente en cada barrio. Recuerda cuáles son las vías para poder participar: encuesta en papel buzoneada, en el Ayuntamiento (de manera presencial), en la página web del Ayuntamiento y en las Asambleas. El plazo de presentación de encuestas finalizará el 29 de enero, el mismo día de finalización del ciclo de las Asambleas de Barrio. Remarcar que el objetivo de las encuestas es marcar |

| | | |
|---|---|---|
| | aurrekontuen joerak edo lehentasunak zehaztea 2016ko aurrekontuak prestatzerakoan kontuan hartzeko ahal den heinean eta aurrekontu-eskuragarritasunaren arabera; zinegotziek ekarpenak Osoko Bilkuran onartu beharko den aurrekontuan jasotzeko ahalegina egiteko konpromisoa hartu dute.<br>Halaber, gogora ekarri behar da urtearen bukaeran onartutako mozioak zioela 2016ko aurrekontuetan parte hartze handiagoa bultzatu behar zela eta horrexegatik egin dela inkesta hau eta parte hartzeko prozesu hau. | cuáles son las tendencias presupuestarias, o las prioridades presupuestarias, para tenerlas en cuenta en la elaboración del presupuesto de 2016 y, en la medida de lo posible, y, según disponibilidad presupuestaria, los 17 concejales/as hacer el esfuerzo de incorporar esas aportaciones en el presupuesto, que se debe aprobar en Pleno.<br>Decir también que, a final de año, se aprobó una moción impulsando que los presupuestos de 2016 fuesen más participativos, de ahí la realización de esta encuesta y de este proceso participativo. |
| | **Natxo Urkixo (ALKATEA).-** Udal teknikariak aurkeztu ditu: Joseba Solaun, Laura Castresana eta Juanfer Etxebarri; moderatzaile eta argiztapen-teknikari gisa eta, akta idazteko, Arantza. | **Natxo Urkixo (ALCALDE).-** Presenta a los técnicos del Ayuntamiento: Joseba Solaun, Laura Castresana y Juanfer Etxebarri; como moderador y técnico de iluminación, Andoni y Arantza, que está tomando acta del acto. |
| | **3_Jon Ander Altube (BILDU).-** Asmoa du lehenengo txandan azken hilabeteotan egin dena gogoratzea eta bigarren txandan eztabaidatzea, bakoitzak nahi duena planteatuta. | **3_Jon Ander Altube (BILDU).-** Pretende hacer un primer turno recordatorio de lo que se ha hecho en los últimos meses y un segundo turno de debate, en el que cada cual es libre de plantear lo que quiera. |
| | **a.- Aretako frontoia**: 2015eko aurrekontuan (oraindik indarrean) 30.000 €-ko diru-partida bat dago. otsailetik aurrera, aurreikuspenen arabera 25.000 €-ko kostua izango duten lanei ekingo zaie: frontoia pintatuko da eta zoladura berrituko; otsailean hastea erabakitzeko arrazoia izan da aurreko ekitaldiko aurrekontua likidatzen denean, Herriaren elkartearekin koordinazioa egingo dela lanetan aplikatzeko iradokizunak jasotzeko. | **a.- Frontón de Areta**: En el presupuesto de 2015 (todavía en vigor) hay una partida económica de 30.000 € y, a partir de febrero, se iniciarán una serie de trabajos, con un coste estimado de 25.000 €, y que van a consistir en pintar el frontón y en un nuevo pavimento, un nuevo suelo para el frontón; se decide empezar en febrero porque, una vez que se liquide el presupuesto del ejercicio anterior, se coordinará con Herriaren para recoger una serie de sugerencias a la hora de realizar los trabajos. |
| | ç | **b.- Ladera de la estación de Areta**: Son unas obras de estabilización de la |

| | | |
|---|---|---|
| | **b.- Aretako geltokiko mazela**: Mazela egonkortzeko lanak dira, gutxi gorabehera 69.000 €-ko kostuarekin; azken urteotan, hainbat jarraipen tekniko egin dira (2013ko maiatzean, 2014ko uztailean, 2015eko urtarrilean). Horietan, berretsi egin da nolabaiteko ezegonkortasuna dagoela mazelan; gai garrantzitsua da, segurtasunean eragina duelako: ez da luizirik edo harri askatzerik gertatu, baina berretsi egin da ezegonkortasuna dagoela eta, beraz, lanak ahalik eta lasterren egiteko asmoa dago. Urduñarako bidean dago, geltokiko eraikinaren aurrean. Oraindik Adif-ekin kontu batzuk konfirmatzeko zain gaude, segurtasun-planaren ingurukoak eta, eguraldiak uzten digunean, hasteko une egokia bilatuko genuke. Aurreikuspenen arabera, lanek hilabete iraungo dute.<br><br>**Natxo Urkixo (ALKATEA):**<br><br>**c.- Kamioien joan-etorriak mugatzea Aretan**: Teorikoki, zubiko galiboa 3,5 metrokoa da, baina orografia dela eta, ohikoa da kamioiak trabatuta geratzea. Aldundiko errepideen zuzendari Marian Gonzalezekin bilera egin da, eta eskatu zaio tona askoko kamioiak hirigunean zehar ez igarotzeko proposamena egin dezan, horrelako ibilgailuen Bilbo eta Gasteiz arteko trafikoa errepidetik desbideratzeko. Proposamen pare bat egin dira eta, printzipioz, konpromisoa hartu dute premiazko proposamen bat egiteko eta, ondoren, proposamen iraunkorrago bat, eraginkorragoa, behin betikoa. Halaber, Latiorroko biribilgunearen problematika ere aipatu da. Espero da datorren hilabetean eurekin izango den bileran, gutxienez, aipatutako behin behineko proposamena lortzea. | ladera, con un coste de, en torno a los 69.000 €; en los últimos años se han hecho varios seguimientos técnicos (en mayo de 2013, julio de 2014, enero de 2015) en los que se ha confirmado que hay cierta inestabilidad en esa ladera; es un tema importante, porque tiene que ver con temas de seguridad; no se ha producido ningún alud, ni desprendimiento, pero sí se confirma que hay una inestabilidad, por lo que hay un interés en realizar el trabajo cuanto antes. La ubicación es dirección Orduña, frente al edificio de la estación. Estamos a la espera de confirmar con Adif una serie de cuestiones, que tienen que ver con el Plan de Seguridad y, en cuanto el tiempo lo permita, se buscaría el momento adecuado para empezar. Las obras tienen una duración estimada de un mes.<br><br>**Natxo Urkixo (ALCALDE):**<br><br>**c.- Limitación de paso de camiones por Areta**: El gálibo del puente, teóricamente, es de 3,5 metros, pero, debido a la orografía del terreno, es frecuente que los camiones se queden trabados. Se lleva a cabo una reunión con la Directora de Carreteras de Diputación, Marian Gonzalez, y se le solicita que se realice una propuesta para evitar la circulación de camiones de gran tonelaje por el centro urbano, poder desviar el tráfico de éstos entre Bilbao y Vitoria por la carretera. Se le plantea un par de propuestas y se comprometen a realizar, en principio, una propuesta de urgencia y, posteriormente, una más definitiva, más duradera, más efectiva. También se menciona la problemática de la rotonda de Latiorro. Se espera que el mes que viene, en una próxima reunión con ellos, se consiga, por lo menos, la propuesta provisional antes |

| | | |
|---|---|---|
| | | mencionada. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU):** | **Jon Ander Altube (BILDU):** |
| | **d.- Aretako Kultur Etxea**: Kultur Etxean mantentze- eta birgaitze-lan batzuk daude egiteke, baita behar-beharrezkoak diren eraberritze batzuk ere. 2015eko aurrekontuetan, 50.000 €-ko partida bat dago Kultur Etxe horretan inbertitzeko. Kontu juridikoak direla eta, bi aukera daude: Kultur Etxeak lanak egitea Udalak diruz lagunduta edo Udalak inbertsioak zuzenean egitea, VI. atalean kargatuta. Bigarren aukera baliatzea erabaki da eta, beraz, Udalak 49.907 € inbertituko ditu beharrezko lan batzuk egiteko, betiere, Kultur Etxeko zuzendaritzarekin adostuta. III. atalean badago partida txiki bat estalkiarekin erlazionatuta, jada egindako lanei dagokiena; halaber, bada funtsezko atal bat, gas naturalaren berogailuarena, aurrekontuaren % 80a baino gehiago hartzen duena, hau da, 41.000 € eta gero elektrizitatearen kontua eta pinturarena izango genuke. Lan guztiak esleituta daude, badago partida eta 2016ko aurrekontuan jasoko dira. | **d.- Kultur Etxea de Areta**: Están pendientes trabajos de mantenimiento y rehabilitación de la Casa de Cultura, y una serie de reformas que resultan más que necesarias. En los presupuestos de 2015 hay una partida de 50.000 € para realizar inversiones en esta Casa de Cultura; por cuestiones jurídicas existen dos opciones: que la Casa de Cultura aborde una serie de trabajos subvencionados por el Ayuntamiento y la posibilidad de que sea el Ayuntamiento el que realice una inversión directamente, desde el capítulo VI. Se ha optado por esta segunda opción, por lo que el Ayuntamiento invertirá 49.907 € en realizar una serie de trabajos necesarios y acordados con la directiva de la Casa de Cultura. Hay una pequeña partida, del capítulo III, que tiene que ver con la cubierta y que son trabajos ya ejecutados; hay un capítulo fundamental, el de la calefacción de gas natural, que se lleva más del 80% del presupuesto, 41.000 € y luego tendríamos la parte eléctrica y la relativa a la pintura. Están todos los trabajos adjudicados; hay partida, se incorporará a los presupuestos de 2016. |
| | **e.- Haurrentzako jolas-eremuko estalkiak**: Udalak hartutako erabaki batean onartu zen estalkia ipintzea jolas eremu batzuetan. Bada indarrean dagoen partida bat, gutxi gorabehera 80.000 € dauzkana eta aukera dago Aretako jolas eremutik hasteko. | **e.- Cubierta en zonas de juegos infantiles**: El Pleno del Ayuntamiento adoptó un acuerdo en el que se planteaba cubrir algunas zonas de juego. Existe una partida en vigor, de en torno a 80.000 € y la posibilidad de empezar con la zona de juegos de Areta. |
| | **f.- Iturralde**: Ez da atzoko gaia. Aspaldiko kontua da Iturraldeko | |

| | | |
|---|---|---|
| | irisgarritasuna hobetzearena, lan handia egin da horretan. Obra horien lehenengo fasea udaberrian hasiko da, Iturraldeko erdialdean; guztirako aurrekontua 208.000 € izango da eta, bigarren fasea, atarirako atzeko sarbidearena egikaritzeko beste 140.000 € euro bideratu dira. Proiektu teknikoa behin betiko onartuta dago; zenbait alegazio aurkeztu ziren, horietako batzuk onartu, proiektua aldatu zen eta behin betiko onartu. | **f.- Iturrialde**: No es un tema reciente. El proyecto para mejorar la accesibilidad en la zona de Iturrialde es una historia antigua, algo en lo que se ha trabajado mucho. La primera fase de estas obras comenzarán en primavera, en la zona central de Iturrialde, con un presupuesto total de 208.000 € y la segunda fase, vial trasero de acceso al portal, con un presupuesto de 140.000 €. El proyecto técnico está definitivamente aprobado; hubo una serie de alegaciones, se admitieron algunas de ellas, se transformó el proyecto y se aprobó definitivamente. |
| | **Laura Castresana (udal arkitekto teknikoa).-** Lehen fase honetan irisgarritasunaren gaiari heltzen zaio, oinezkoena zein ibilgailuena. Ibilgailuentzako eremuak gehiegizko aldapa du eta ez du oinezkoentzako irisgarritasunik; proiektuarekin lortu dena da atari bakoitzaren irisgarritasuna hobetzea, berdegune gehiago ipintzea eta suhiltzaile, anbulantzia eta beste edozein ibilgailu motatarako irisgarritasuna bermatzea. Arrapala baten bidez eta bertan dauden bi atarietarako sarbidearekin, bihurgunearekin zegoen arazoa konpontzea lortu da. Oinezkoentzako eremua irisgarria da % 100ean. Proiektuaren bidez, sarbideen gaia konpondu da. | **Laura Castresana (Arquitecta Técnica Municipal).-** Esta primera fase aborda el tema de la accesibilidad, tanto peatonal como rodada. La zona rodada tiene una pendiente excesiva y no hay accesibilidad peatonal; lo que se ha logrado con este proyecto es la accesibilidad a cada portal, se ha ganado en zona verde y accesibilidad a bomberos, ambulancias…y a cualquier tipo de vehículo. A través de una rampa se ha conseguido solucionar el problema existente con la curva y con el acceso a los dos portales ahí ubicados. La zona peatonal es accesible 100%. Con este proyecto se ha llegado a resolver el tema de los accesos. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU):**<br><br>**g.- Bide-asfaltatzeak**: Udalerri osoan egiteke dagoen lanetako bat. Iaz Gardean, Irukurutzetan, Txirritan eta autobiderako sarbidean egin zen eta aurten planteatu dena da Aretan ere inbertsioa egitea; Osakidetzako biribilgunean hastea eta Atxetaraino iristea, Atxarte eta Landeta barne hartuta. Pleguak idazten ari dira; inbertsio garrantzitsua da, hasierako prezioa 320.000 € baita. | **Jon Ander Altube (BILDU):**<br><br>**g.- Asfaltados en viales**: Es otra de las asignaturas pendientes en todo el término municipal. El año pasado se realizó la zona de Gardea, Tres Cruces, Txirrita y el acceso a la autovía, y lo que se plantea este año es realizar la inversión en Areta; comenzar en la rotonda de Osakidetza hasta la curva de Atxeta, incluyendo Atxarte y Landeta. Se están redactando los pliegos; se trata |

| | | |
|---|---|---|
| | | de una inversión importante, con un precio de salida de 320.000 €. |
| | **h.- Inbertsioak ikastetxeetan**: Aretako ikastetxean, 2015ean, aldagelak eta gimnasioko biltegia birgaitu dira, gutxi gorabehera 75.000 euro gastatuta. Aurten egiteko obra txikiagoa planteatzen da: berotze-sistemaren kanpoko zirkuituak lurperatzea, fatxadaren kanpoko aldean daudelako. Horretarako, gutxi gorabehera, 18.000 eta 20.000 euro bitarteko aurrekontua egongo da; diru-laguntza eskatu zaio Eusko Jaurlaritzari (printzipioz, % 60) eta Udalak gainerako % 40a jarriko luke. | **h.- Inversiones en centros educativos**: En la escuela de Areta, en el año 2015, se ha realizado la reforma de los vestuarios y el almacén del gimnasio, con un gasto en torno a 75.000 €. Para este año se plantea una obra más modesta, soterrar los circuitos exteriores de la calefacción, que van por la fachada, con un gasto aproximado de, entre 18.000 y 20.000 €; para poder realizarla, se ha solicitado subvención al Gobierno Vasco ( en principio un 60%) y el Ayuntamiento aportaría el 40% restante. |
| | **i.- Laudioko LHko ikastetxea**: Urte luzez Laudio Udalak kudeatu du zuzenean eta, gaur egun, sare publikoan integratzeko prozesuan dago: izaera publikoari eustea nahi da, baina Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailaren menpekoa. Horren helburua da kudeaketa hobetzea eta baliabide eta inbertsio gehiago lortzea. 2013ko urrian Eusko Legebiltzarrean onartutako lege baten eranskinari esker, Laudio Udalak Eusko Jaurlaritzarekin hitz egiten hasteko aukera izan du etorkizunean sare publikoan sartzeko baldintzei buruz. Garrantzitsutzat jo da Laudion LHko ikastetxe bat izaten jarraitzea eta horren kudeaketa hobetzea. 50 pertsonatik gora lan egiten du han. LHUI finantzatzeko, Eusko Jaurlaritzaren diru-laguntza bat zegoen, horrekin langileria gastu gehienei egiten zitzaien aurre: batez beste, urtero 700.000 € gastatzen zen langileria kontuetan. Eusko Jaurlaritzarekiko hitzarmena sinatzeko eta, ondoren, Osoko Bilkuran erabakia hartzeko zain gaude. | **i.- Centro de FP de Laudio**: Durante años ha estado directamente gestionado por el Ayuntamiento de Laudio y actualmente se encuentra en un proceso de integración en la red pública; se pretende que siga siendo público, pero que pase a depender del Gobierno Vasco, del Departamento de Educación; el objetivo es conseguir la mejora en gestión, recursos y más inversiones. En octubre de 2013 se aprueba una ley en el Parlamento Vasco que ha posibilitado, a través de un anexo, que el Ayuntamiento de Laudio comenzara a hablar con el Gobierno Vasco de los términos de una futura integración en la red pública. Se valora seguir contando con un Centro de FP en Laudio de gestión pública y con una mejor gestión. El Centro cuenta con una plantilla de más de 50 personas. Existía un convenio con el Gobierno Vasco que financiaba el Centro, cubría prácticamente todos los costes de personal, con un coste medio anual de 700.000 €. Se está a la espera de la firma del convenio con el Gobierno Vasco y el posterior acuerdo plenario. |

| | | |
|---|---|---|
| | **j.- Enplegu-programak**: Udalak ahalegina egin du langabezian dauden pertsonak, bereziki langabezian denbora luze daramatenak baldintza duinetan aldi baterako kontratatzea dakarten programak martxan jarrita. Azken urtean, 23 pertsona kontratatu dira 6 hilabeteko kontratuekin eta lanaldi osoan. Programa horietako batzuk ez ditu Udalak zuzenean kudeatzen, Aiaraldeko kuadrillak baizik (horren zati gara beste 4 udalerrirekin batera). Azken urteotan, lege-mugapenak egon dira, esaterako, murrizketak nahiz gobernu zentralaren legeak eta, beraz, Udalak zuzenean kontratatzeko aukera zaildu egin da; hainbat formula bilatu behar izan dira, adibidez, programa propioak sortzea irabazi-nahirik gabeko erakundeekiko hitzarmen bidez edota halako kontratazioak Aiaraldeko kuadrillak berak egitea. Obra bat kontratatzen denean, pleguetan, gizarte klausulak sartzen saiatzen da Udala, zenbait baldintza betearazteko. Azken kontratu publikoen alderdi berritzaileena izan da enpresek X pertsona langabetu kontratatzeko ahalegina egitea, ahal bada, herrikoak: Lamuza parkean Aldaiko errekaren saneamendua egiteko 2 pertsona kontratatu dira eta beste 2 geltokiaren inguruko obrak egiteko. Udalak ez du eskumenik enplegu kontuetan, baina enplegu-planak sustatzen eta duintasun baldintzetan kontratatzen saiatzen da, beti ez delako horrela; erreferentziazko hitzarmenak eta gako izan daitezkeen kontratuak aipatzen dira, lan-adinari dagokionez, segmentu desberdinetara iristen saiatuta; jende oso gaztea edo jende oso nagusia. Genero-ikuspegia ere aplikatu da, gutxieneko emakume kopuru bat kontratatzen dela bermatuta, emakumeen langabezia tasak gizonen bikoitza baita ia. Programa gehiago garatzen saiatuko da Laudio Udala zuzenean, udal gisa. | **j.- Programas de empleo**: El Ayuntamiento realiza un esfuerzo llevando a cabo programas de empleo que supongan la contratación eventual, en unas condiciones dignas, de trabajadores y trabajadoras desempleadas, parados/as de larga duración. A lo largo del último año se han contratado 23 personas con contratos de 6 meses y a jornada completa. Algunos de estos programas no están gestionados directamente por el Ayuntamiento, sino por la Cuadrilla de Aiala (de la que formamos parte junto a otros 4 municipios). Estos últimos años ha habido limitaciones de tipo legal, vía recortes, vía Gobierno Central, por lo que la contratación directa por parte del Ayuntamiento se ha complicado; ha habido que buscar fórmulas, como la creación de programas propios, vía convenio, con entidades sin ánimo de lucro y, en otras ocasiones, se llevan a cabo este tipo de contrataciones a través de la Cuadrilla de Aiala. Cuando se contrata una obra, en los pliegos, se intenta introducir cláusulas sociales para que se cumplan una serie de condiciones. Lo novedoso de los últimos contratos públicos ha sido hacer un esfuerzo para que esas empresas contrataran a X personas desempleadas y del pueblo, a ser posible; se ha contratado a 2 personas para la obra del saneamiento del arroyo Aldai, en el parque de Lamuza, y otras 2 para las obras del entorno de la estación. El Ayuntamiento no tiene competencias en materia de empleo, pero se procura promover estos planes de empleo y contratar en condiciones de dignidad, que no siempre es así; hablamos de unos convenios de referencia y de contratos que pueden ser claves, procurando ir a diferentes segmentos, o gente muy joven o gente mayor, en cuanto a edad laboral, y teniendo en cuenta la perspectiva de género, asegurando que haya un mínimo de |

| | | |
|---|---|---|
| | | mujeres contratadas, puesto que la tasa de paro entre mujeres prácticamente duplica a la de los hombres. Se intentará desarrollar más programas directamente como Ayuntamiento de Laudio. |
| | **k.- Hobetu herria**: Udalaren webgunearen bidezko tresna txikia da gorabehera txikiak, iradokizunak eta jakinarazpenak eman ahal izateko. Duela gutxi, Osoko Bilkuran onartu zen bestelako aplikazioak izatea (telefonia mugikor bidezkoak eta abar) horrelako gorabeheren berri emateko; oraindik ez da garatu, beraz, bitartean, aipatutako web-tresna hori eskuragarri egongo da eta Udaletxean bertan jakinarazteko aukerak ere hor jarraituko du | **k.- Mejora tu pueblo**: Es una herramienta, vía página web del Ayuntamiento, para que pequeñas incidencias, sugerencias, avisos se puedan realizar. Recientemente se aprobó en Pleno una moción que planteaba tener otro tipo de aplicaciones (telefonía móvil y demás) para transmitir este tipo de incidencias; todavía no está desarrollado, así que, mientras tanto, está disponible esta herramienta y la posibilidad de hacerlo de manera presencial en el Ayuntamiento. |
| **Galderak**<br>Preguntas | **4_Auzokoa.-** Iturralden makinen zain daude, lanak has daitezen.<br><br>**Auzokoa.-** Frontoira igotzeko errepidean hiruzpalau zulo egoteaz kexu da, ibilgailuek handik ibiltzeko arazoak dituztelako.<br><br>**Jon Ander Altube (BILDU).-** Esan du frontoian aurreikusi diren lanak barruko zoladura konpontzeko direla. Ez du zalantzan jarri errepideko zoladura konpondu behar denik, baina ez dago aurreikusita, azter daitekeen arren.<br><br>**Txaro Sarasua (PSE-EE).-** Handik ibilgailu asko igarotzen ote diren galdetu du, gaia interesatzen zaiolako. Esan duenez, goizean bertan jakinarazi diote gobernu taldeari eremuz eremuko eta auzoz auzoko analisia egin beharko | **4_Vecino.-** Están esperando en Iturrialde a que lleguen las máquinas y empiecen ya las obras.<br><br>**Vecino.-** Se queja de la existencia de tres o cuatro baches en la calzada de subida al frontón, generando dificultad para la circulación de vehículos.<br><br>**Jon Ander Altube (BILDU).-** Dice que las reformas previstas en el frontón son las que se realizarán en el pavimento del interior del mismo. No pone en duda la necesidad de arreglar el pavimento, pero es algo que no está previsto, aunque se puede estudiar.<br><br>**Txaro Sarasúa (PSE-EE).-** Pregunta si pasan por esa zona muchos coches, porque el tema le interesa. Dice que esa misma mañana han trasladado al equipo de gobierno que se debería hacer un análisis de zonas, de barrios, que tengan una situación de deterioro avanzado, |

| | | |
|---|---|---|
| | litzatekeela narriadura handia den tokietan, badaudelako zenbait zonalde, zenbait auzo oso hondatuta daudenak eta, beraz, gutxika-gutxika halako inbertsioak egin beharko liratekeelako. | puesto que hay zonas, en barrios, que están exageradamente deterioradas, por lo que se debería afrontar poco a poco este tipo de inversiones. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Erantzun du frontoian planteatzen dena kirol instalazio baterako inbertsioa dela; asfaltatzea beste atal bat litzateke. Jasota utzi da frontoirako igoerarena, gaur egun aurreikusita ez dagoen arren. | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Responde que lo que se plantea en el frontón es una inversión en una instalación deportiva; el asfaltado sería otro capítulo diferente y se toma nota de la subida del frontón, aunque hoy por hoy no está previsto. |
| | **Auzokoa.-** Vitoria-Gasteiz kalean eraiki behar ziren etxebizitzei buruz galdetu du. | **Vecina.-** Pregunta por las viviendas que se iban a construir en la calle Vitoria. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Esan duenez, ez da ezer berririk 2014ko abenduan egindako batzarraz geroztik. Gaur egun, gaia egonean dago. Bere garaian onartu egin zen plan orokorraren aldaketa esparru oso horretarako eta, ondoren, ez da garatu. Hirigintza arloko esku-hartzea bideratzeko programa-proposamen bat aurkeztu zen, baina ez zen aurrera atera eta, beraz, etorkizuneko proiektuen zain dago Udala. Udalak konpromisoa hartu zuen aldaketak egitekotan modu koordinatuan egiteko eta herritarrei entzunaldiak emateko. | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Comenta que no hay novedad con respecto a lo comentado en la Asamblea que se realizó en diciembre de 2014. Hoy por hoy ese tema está parado. En su día se aprobó una modificación del Plan General para todo ese ámbito y, posteriormente, no se ha desarrollado. Se presentó una propuesta de programa de actuación urbanizadora que no salió adelante, por lo que está pendiente de futuros proyectos. Por parte del Ayuntamiento hubo un compromiso de que, de producirse algún cambio, se haría de manera coordinada y se daría audiencia a los vecinos. |
| | **Auzokoa.-** Jakin nahi du berririk egotekotan eragindako herritar guztiei jakinaraziko zaien. | **Vecina.-** Quiere saber si, en caso de novedad, se informaría a todos los afectados. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Erantzun du baietz, hala egingo litzatekeela eta gutxi barru plan orokorra berrikusten hastea aurreikusi dela, beraz, alderdi guztiek euren ekarpenak egin ahal izango dituztela eta aurrera egiteko | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Responde que si, que así se haría y que en poco tiempo se prevé el inicio de la revisión del Plan General, así que las diferentes partes podrán hacer aportaciones y se podrá avanzar. |

| | | |
|---|---|---|
| | aukera egongo dela. | |
| | **Auzokoa.-** Errepikatu du eragindako herritar guztiei informazioa eman behar zaiela. Kexu da obra-baimenak eskatzen direlako eta handik sei hilabetera "jakinarazten dizutelako egindakoa eraitsiko dutela beste gauza bat aurreikusita zegoelako"; obra-baimena eskatzerakoan eman beharko lukete informazioa. | **Vecina.-** Insiste en que se informe a todos los afectados. Se queja de que se piden permisos de obra y, al de seis meses, “te comunican que van a tirar la obra realizada porque ahí está previsto otra cosa”; deberían informar a la hora de solicitar el permiso de obra. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Erantzun du pausorik ematen bada, egoera aldatzen bada, parte hartzeko aukera emango dela; aurreko batzarrean hartutako konpromisoa berretsi du. | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Contesta diciendo que si se da un nuevo paso, si cambia la situación, se dará participación; se reitera en el compromiso adquirido en la Asamblea anterior. |
| | **Auzokoa.-** Galdetu du noiz kontratatuko den plan orokorraren berrikuspena. | **Vecino.-** Pregunta para cuándo se va a contratar la revisión del Plan General. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Esan du egun horretan bertan bildutako hirigintza batzordean argi utzi dela plan orokorraren berrikuspena aurten bertan hasiko dela. Plana idazteko zerbitzuaren esleipenak izan lezakeen kostua zehazteko aurrekontu-aurreikuspenak jorratu dituzte, baina ez da asko jorratu diru-zuzkiduraren gaia, hori guztia planteatzeko modua baizik. Prozesu luzea da. Jendeak parte hartzea nahi da; foro batean etorkizunean zer nolako Laudio nahi dugun planteatzeko oinarri estrategikoak ezartzeko eztabaida egin zen aspaldi eta planteatu egin zen nahi ote dugun hirigintza-planteamendua helburu horiek betetzeko tresna izatea; horretarako denbora beharko da eta gauzak behar bezala egitea da helburua, baina baliabideak badaude, Udalbatzak aho batez erabakita dauka 2016ko | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Dice que en la Comisión de Urbanismo realizada ese mismo día tienen claro que la revisión del Plan General arrancará este año. Han hablado de unas primeras previsiones presupuestarias para saber qué costes podría tener la adjudicación, la redacción de dicho Plan, sin referirse tanto al tema económico de dotación, sino al cómo plantear todo eso. Es un proceso largo en el tiempo. Se pretende que haya participación; hace un tiempo se hizo un trabajo por parte de un foro, para establecer unas bases estratégicas que plantearan qué Laudio queremos en un futuro y si queremos que el planeamiento urbanístico sea un instrumento que trabaje para esos objetivos que se han planteado; esto es algo que va a llevar tiempo y se pretende hacer bien, pero si hay medios para ello, hay un acuerdo unánime en la Corporación para que, en el presupuesto |

| | | |
|---|---|---|
| | aurrekontuan dagokion diru kopurua kontsignatzeko. | del año 2016 se recoja la consignación correspondiente y se avance con el tema. |
| | **Auzokoa**.- Esan du ibilgailu astunak hirigunetik "ateratzeari" buruz aipatu dena ez dagoela jasota planaren berrikuspenean; gehitu du autobidera desbidera litezkeela edo autobide ibilgailu horientzat doan izatea plantea litekeela. | **Vecino**.- Comenta que la apreciación que se ha realizado sobre "sacar" el tráfico pesado del centro urbano no está contemplado en la anterior revisión del Plan; comenta que se podría instar a realizar un desvío por la autovía o la gratuidad de la autopista. |
| | **Jon Ander Altube (BILDU).-** esan du plan orokorraren berrikuspena izango litzatekeela; una hartan hori jasota ez egoteak ez duela esan nahi orain ezin denik egin. Errepikatu egin du Hiri Antolamendurako Plan Orokorra prestatzeko denbora behar dela eta, are gehiago, parte hartzearen bidez taxutu nahi bada. | **Jon Ander Altube (BILDU).-** Dice que será una revisión del Plan General; que no estuviese recogido en aquel momento no significa que no se pueda hacer ahora. Insiste en que el Plan General de Ordenación Urbana lleva su tiempo, y más si se quiere hacer de una manera un poco participada. |
| | **Natxo Urkixo (BILDU).-** Azaldu duenez, gauza bat da ibilgailu astunak hirigunetik atera ahal izateko behin betiko proiektua, plan orokorrari lotutakoa, normalean oso motel egiten dena eta beste gauza bat dela gaur egun egiten ari diren lana, hau da, kamioiak Aretako erdigunean zehar ez igarotzeko behin behineko konponbidea, ahal bezain laster aplikatzekoa. Aldundiari eskatu zaio moduren bat bila dezala behin behinean baina berehala desbideratzea egiteko. | **Natxo Urkixo (BILDU).-** Explica que una cosa es el proyecto definitivo para poder sacar la circulación del tráfico pesado del centro urbano, unido al Plan General, y algo muy lento en el tiempo, y otra es el trabajo que se está realizando actualmente, como forma provisional, para sacar cuanto antes este tráfico de camiones del centro de Areta. La petición hecha a Diputación es que se busque una forma para que, provisionalmente, desde ya, se pueda llevar a cabo la desviación. |
| | **Auzokoa**.- Etxebizitzaren gaiaz kexatu da. Alokatzea ezinezkoa da dauden prezioekin, ez da eraiki nahi "ez gaudelako horretarako prest" eta etxe huts asko daude, baina jendeak ez du alokatu nahi apurtuko dizkietela uste dutelako. Galdetu egin du nola ezar litekeen alokairuak arautzeko moduren | **Vecina**.- Se queja del tema de la vivienda. Los alquileres están imposibles, no se quiere construir "porque no estamos por la labor", y hay muchas casas vacías que la gente no quiere alquilar por miedo a que se las rompan. Pregunta de qué manera se podría establecer una normativa para poder regular esos alquileres. Plantea una gestión social para que haya |

| | | |
|---|---|---|
| | bat. Kudeaketa soziala planteatu du alokairu sozialak egon daitezen. | alquileres sociales. |
| | Bestalde, esan du badaudela industria-ondare diren espazio batzuk eta salgai edo alokagai dauden zenbait fabrika irudi tamalgarria ematen dutenak, gauez argia egon arren, desatseginak direlako. Esan duenez, "urteak eta urteak utzita" daramatzaten "obrako" zenbait etxabetan nolabaiteko jarduerak egin litezkeela (esaterako, jendeak ikasi ahal izateko liburutegiak). Horrek bizitza emango lieke etxabeei. | Por otro lado, dice que hay espacios que son patrimonio industrial o fábricas en venta o alquiler que le parecen una ruina porque, aunque haya luz de noche, le resulta desagradable. Comenta que hay lonjas “de obra” que llevan “años y años muertas de la risa”, en las que se podría hacer algún tipo de actividad (bibliotecas donde la gente pudiera estudiar, por ejemplo), lo que daría vida a las lonjas. |
| | Halaber, esan du “Harino Panadera” espazio eskerga dela eta, aurri egoeran dagoen arren, adibidez, gizarte etxea eta etxebizitza sozialak eduki ditzakeen espazioa egin daitekeela hor. | También comenta que “Harino Panadera” es un espacio enorme, en ruinas, en el que se podría hacer, por ejemplo, un espacio mixto donde hubiera un centro social y viviendas sociales. |
| | Jakin nahi du nola ezar litekeen kontaktua Aldundiarekin papererako edukiontzia eta plastikorako edukiontzia lortzeko. Esan du askotan hitz egin duela Aiarako kuadrillako ordezkariekin, eurak omen direlako arduradunak, baina esaten diotela eurak bitartekariak direla eta Udalera bidaltzen dutela; hainbatetan deitu die Aiarako kuadrillako ordezkariei, baina, erraztasun guztiak ematen dizkioten arren, ez da ezer konpontzen. Ez du ulertzen zergatik den konpontzeko hain zaila. Halaber esan du etxerantz gurutzatzeko dagoen igarobidean (Katean) ezinezkoa dela gurutzatzea, abiadura muga 50 km/h izan arren, ibilgailuak bizkorrago igarotzen direlako. Aldundiaren eskumena denez, ez da konpontzen. | Quiere saber cómo establecer un contacto con Diputación para poder conseguir el abastecimiento del contenedor de papel y el de plástico. Dice haber hablado muchas veces con la Cuadrilla de Aiala, que se supone que es la responsable, aunque le dicen que son intermediarios, y le remiten al Ayuntamiento, que realizan llamadas a la Cuadrilla y “todo son facilidades”, pero no se resuelve el tema. No entiende cómo puede ser tan difícil de resolver. También comenta que hay un paso en carretera para cruzar a la casa (en La Cadena), en el que resulta imposible cruzar por la velocidad a la que circulan los vehículos, aunque hay un límite de velocidad a 50 km/h, y como es competencia de Diputación no se resuelve. |
| | Planteatu du bizikletak hartzeko puntuak ipin daitezkeela autoak gutxiago erabiltzeko. Aukera dago etxabe hutsak bizikleten aparkaleku gisa | Plantea la posibilidad de la existencia de puntos de recogida de bicicletas, para |

| | | |
|---|---|---|
| | erabiltzeko edo konpontzeko tailer gisa. Halaber, hainbat bizikleta, triziklo etab. desberdin asma litezke.<br><br>**Jon Ander Altube (BILDU).-** Erantzun du planteatutako gaietako batzuk zerikusia dutela plan orokorrarekin eta Laudion 10, 15 edo 20 urtean egin nahi duguna eztabaidatzerakoan etxebizitzaren gaia, lokal hutsetan ekimen kulturalak bideratzea eta beste hainbat gai jorra daitezkeela.<br>Azaldu egin du zabor bilketa, printzipioz, udal ardura dela, baina gaur egun mankomunatuta dagoela eta Aiaraldeko kuadrillak kudeatzen duela. Arazoren bat badago, Udalera jo behar da eta Udalak hartuko du hori konpontzeko ardura.<br><br>Esan du plan orokorrean planteatu egin daitekeela Laudion etorkizunean zer nolako etxebizitzak nahi ditugun: etxebizitza babestuak, etxebizitza sozialak… Ziur aski, jabetza defendatzeari utzi beharko zaio; azpimarratu egin beharra dago baldintza duinak dituen etxebizitza izateko eskubide bat dagoela, baina ez dagoela nahitaez jabe izateko beharrik. Laudiok baditu udal jabetza diren hainbat etxebizitza eta horiei erabilera kolektiboa ematen zaie, hau da, horietan zenbait zerbitzu ematea da asmoa. Joan den legegintzaldian, bilera bat egin zen Alokabiderekin eta esan zutenez, Laudio oso alokairu gutxi dago; Bizigune programaren bidez, Alokabidek etxebizitza partikularrak alokatzen ditu merkatukoa baino prezio txikiagoan: Eusko Jaurlaritzak abala jartzen du, gerta litezkeen kalte edo ardura batzuk ordainduko direla bermatzen du eta, horrela, ondare-bermearen segurtasun juridikoa ematen dio jabeari eta zentzuzko prezioa alokatzaileari. Udalak beste erakundeak presiona ditzake eta, etorkizunari begira, gure beharretara, hau da, | usar menos los coches. Cabría la posibilidad de utilizar las lonjas vacías para aparcar las bicis, o para usarlas como talleres para arreglarlas, o idear diferentes bicis, triciclos, etc…<br><br>**Jon Ander Altube (BILDU).-** Responde que alguna de las cuestiones planteadas sí tienen que ver con el Plan General, con discutir entre todos/as qué queremos hacer en Laudio a 10-15 o 20 años, puede tener que ver con la vivienda, con dar alternativas culturales a locales vacíos...<br>Explica que la competencia de la recogida de basuras, en principio, es municipal, aunque ahora está mancomunada y se presta a través de la Cuadrilla de Aiala. Si hay algún tipo de problema, hay que recurrir al Ayuntamiento y éste será el que tenga que preocuparse en resolverlo.<br>Dice que el Plan General sí puede hablar a futuro de qué planteamientos de vivienda queremos para Laudio: vivienda protegida, vivienda social...probablemente habrá que dejar de defender la propiedad; hay que subrayar que hay un derecho a la vivienda, en condiciones dignas, pero no necesariamente a través de ser propietario. Laudio tiene una serie de viviendas de su propiedad a las que da un uso colectivo, es decir, se pretende dar una serie de servicios en ellas. La pasada legislatura hubo una reunión con Alokabide, quienes dijeron que en Laudio hay muy poca oferta de alquiler; Alokabide, a través del programa Bizigune, se dedica a alquilar viviendas particulares a un precio más bajo que el de mercado; el Gobierno Vasco actúa de avalista, garantiza que se cubran una serie de daños, de responsabilidades, consiguiendo que el propietario tenga la seguridad jurídica de garantía de patrimonio y el arrendatario paga algo razonable. El Ayuntamiento puede trabajar en el sentido de presionar a |

| | | |
|---|---|---|
| | alokairua bultzatzeko, jabetza gutxiago babesteko eta lokal hutsei erabilera emateko beharretara gehiago egokitzen den plan orokorra diseina dezake… Gaur egun, Udalak duen erronkarik handiena da ikustea nola kudeatzen dituen dauzkan lokalak erabilera kulturala emanda. | otras instituciones y, a futuro, en diseñar un Plan General que haga una serie de previsiones que tengan algo más que ver con nuestras necesidades, menos propiedad, más alquiler, alternativas a locales vacíos…hoy por hoy el principal reto que tiene el Ayuntamiento es ver cómo gestiona, para usos culturales, el patrimonio que ya tiene. |
